

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko azaroaren 1a

Nafarroako tunelak aztergai

■ Irurtzun-Andoain autobioako Ferreria eta Ergako tunelak Madrilgo Geoconsult enpresaren aztergai dira egunotan. Hiru aldiz Ergako tuneletako porlana erori ondoren, kezka sortu da Nafarroako Gobernuko Herrilan Saileko arduradunen artean. Geoconsultek egin beharreko txostena falta bada ere, altxatuen erantzule Ergako tunelak zeharkatzen dituen marga faila dela uste dute teknikoez.

Ergako tuneletakoak ez dira Gipuzkoa eta Nafarroa batzen dituen autobian gertatu arazo bakarrak. Otsailean lur-jausia izan zen Gipuzkoan.

Urritzako tunelak ere lana eman die nafar arduradunei. ■



Mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Gehienetan tren hautatzen dut. Hiru estazio zituen herri batean sortu eta hazi denaren aztura ote? Ez dut uste, hura ere autoz josita baitago. Dena den, nik ez dut inoiz dudarik eduki: ez dago tren bezalakorik. Bijaizteko, alegia; ez poemak, pelikulak, erretratuak edo artikulak politikak egiteko. Horrelakoen egile gehienek autotik begiratzen diote trenari, honen silueta ilunabarreko zeruaren kontra atsegin zaie, eta hotsa imitatzen dute seme-alabek ikas dezaten. Nostalgiafako joera daukate, ipuinik kontatuko dien norbaiten ezean menturaz; eta haurtzarora daraman bide ez tira jotzen dute malenkoniaren pozoina sartzen zaienean. Trena iraganera joateko, autoa orainean, hauts lorratz luzea utzi eta etorkizuna harrapatzeko.

Ordea, batzuetan nahita ere ezin hartu. Gaurkoan ere trenez joan nahi nuen, baina pisuzko arrazoiak ziren autobusa aukeratzearen alde. Kontua da nobela oso ezagun bateko protagonistak egin zuen ibilbidearen antzekoa egin behar dudala gaur. Nobelaren egileak erakutsi zigun zein ongi hauta-

zaten dituen eszenategiak; trenak eskaintzen duen giro erromantikoari bizkar eman eta autobusean sartu gintuen, oharturik treneko ipuinek ez dutela balio egungo amesgaiztoetako batzuk azaltzeko.

Egiazko autobusa ez da nobelakoa bezain kitzikagarria. Moja gutxi joan ohi da Mediterraneo aldera eta gainerantzeko bidaiariak elkarren antza dugu; izkutatzeko gutxi daukan jendearen itxura ematen dugu. Sartu eta jesarri orduko Columbia Pictures-eko orkestra lehertu da nire buru gainean, eta horrek esan nahi du loa eta lehiatilak behatzea direla geratzen zaizkizun irtenbide bakarrak. Urrun daude oraindik Los Monegros eta hauek ekartzen dizkidaten espejismoak eta amets gozoak.

Autobusean ez dago ihesbiderik; soinuak eta irudiak bakoitza bere lekuan egotera behartzen dute, eta hurkoa zelatatzen ematen dugu denbora: jesarrita dagoenak komunera doana, irakurtzen ari denak zigarroa erretzeko zutitu dena, bideoa ikusten ari denak lo dagoena... Arrainontzi honetan doan

bidaiariarentzat berriketa izanen litzateke benetako askapena, baina berandu sortu ohi da, normalean erabat akintuta gaudenean. Ordura arte bidaiariari egun hain bizirik dagoen isileko legeari jarraitu zaio: «Eraman ezazu ahal bezain ongi, hurrengoan autoaz etortzea lortuko baituzu...».

Batzuei pena apur bat ematen diegu, aitortzen ez badute ere: «Gaztetan bai, makina bat aldiz... autostopez ere bai...». «Hik ere noizbait erosiko duk hirea», esaten zidatenek etsi egin dute. Hala ere, zail egiten zaie konprenitzea zergatik tematzen garen hainbeste, eta iruditzen zaie beste erremediorik ez dugulako hartzen ditugula *colectivoak*. Ez zaie arrazoirik falta, baina gure istorioak entzutearekin hasten dira ulertzen beste alde hori, besteengandik urruntzen dena ipuin gutxi entzutera kondenaturik baitago.

Gure zakuan istorio asko dago, eta askoz gehiago izanen dugu alboko bidaiariarekin hitz egiten hasten garenean. Bideo alu hau mututzearekin, agian. X

Autobus horiek

* GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Lizarra: Vivaldi abesbatzak kontzertua eskainiko du gaur, arratsaldeko zazpietatik aurrera, Julian Romano kontserbatorioan.

Tafalla: Escarabajos taldeak kontzertua eskainiko du gaur, hilak 1, gaueko bederatzia eta erdietatik aurrera, Gabalzeka tabernan. Ikuskaria musu truk gozaterik izanen da.

Lekunberri: Amaia Zubiriak kantaldia eskainiko du gaur, hilak 1, gaueko bederatzia eta erdietatik aurrera Mitxusene Kultur Etxean. Hilaren bian, bestalde, Irurtzungo Kultur Etxean kontzertua eskainiko du, arratsaldeko zortzietatik aurrera.

Zubiri: Drindots plaza taldea Gautxori aretoan joko du hilaren bian, gaueko ordu batetik aurrera.

ERAKUSKETAK

Iruñea: Jose Manuel Garcia Legideren margoak Iruñeko Alde Zaharreko Auzo Elkartearen (Al-dapa kalea, 5) ikusgai izanen dira azaroaren 23ra arte, goizetan 11.30etatik 13.30etara, eta 18.00etatik 21.00etara.

LEHIAKETAK

Altsasu: Bertso Paper lehiaketa deitu du Kima taldeak. Bi maila izanen dira: Euskal Herritarrena, batetik, eta Sakanako seme-alabena bestetik. Sail bateko zein besteko irabazleek 35.000 pezeta jasoko dituzte. Gaia librea da, eta idazkiak azaroaren zortzia baino lehen aurkeztu behar dira Altsasuko udaletxean.

Iruñea: Narrazio erotiko labur lehiaketa deitu du Sex Haizegoa dendak. Lanek gutxienez 20 folio eta gehienez 50 eduki beharko dituzte, eta urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira Sex Haizegoan bertan (Barañain etorbidea, 29). Idazlanak euskaraz zein gaztelaniaz aurkez daitezke. Irabazleek (euskaraz zein erdaraz) 75.000 pezeta (3.000 libera) patrikaratuko dituzte.

Barañain: VIII. Argazki Lehiaketa antolatu du Udaletxeko Kultur Sailak. Abenduaren 9a baino lehenago bidali behar dira lanak parte hartu ahal izateko. Gaia librea da eta sari banaketa, abenduaren 26an izanen da.

IKASTAROAK

Iruñea: Aisialdi begiraleentzako ikastaroa antolatu du Urtxitxa aisialdi eskolak, Nafarroako Kirol eta Gaztedi institutuaren laguntzaz. Ikastaroa azaroaren bederatzian hasi, eta apirilaren 26an amaituko da. Informazio gehiago jasotzeko dei 211478 telefonora.

Zizur Nagusia: Gazteentzako herri dantza ikastaroa izanen da herriko kultur etxean. Goizez edota arratsaldez aritzeko aukera izanen da. Hilabete bakoitzeko 1.000 pezeta (40 libera) ordaindu beharko dira.

nafarkronika

Fermin Erbiti

Beltz ttipiaren malkoak

L aurogeiko hamarkadaren hasieran Mario Gaviria soziologoak gurea festa eta iraultzaren hiria zela idatzi zuen Iruñeari buruzko liburu batean. Harrezkerotik, urteak joan eta garai berriak etorri dira. Ez omen dira urteak alferrik pasatzen aipatu bi ezaugarrietarik bakar batek segitzen baitu indarrean. Izan ere, irakaslearen aburuz subertsiorako arrazoiak, arrazoirik noizbait izan badugu, desagertu egin dira.

Ongi, oso ongi bizi garela ari da errepikatzen han eta hemen. Guk, nonbait, ez dugu kexatzeko arrazoirik, gurea pribilejiatuen bizimodua delako, aberatsena. Errenta handia dugu, benetako langabezi tasa ofiziala baino askoz murriztagoa, ongizate sistema bikaina... horietatik dira gizarte honen ezaugarriak.

Soziologoak errandakoa burura etorri zitzaidan herenegun egunkaria hartu eta lehen orrialdean hutu arrazako haur ttipiaren malkoekin topo egitean. Ruandara ihesi zihola, ama hil omen zitzaion Zaireko ejertzitoaren eta tutsien arteko enfrontamenduen ondorioz.

Badakit hori ez dela atzo goizeko kontua, mundua mundu denetik hori bezalako haur askoren malkoak ikusi direla Afrikako lur idoretan. Gu ikasle ginelarik fraileraren bat etortzen

zitzagun urtean behin erranez Txinan eta Afrikan bazirela jateko adina ere ez zutenak, gosez hiltzeaz gain Jaungoikoa ezagutu gabe mundu honetatik joaten zirenak. Orduan amari dirua eskatu, fraileari eman eta lasaiago etxeratsen ginen hori edo beltz haietako batek astebetetz guri esker janen zuelakoan.

Haiek, zorionez, aurpegiak gabekoak ziren. Azken urteotan, ordea, afrikar horien aurpegiak ikusteko parada izan dugu. Beraien begirada tristea, (ba al da gauza tristeagorik haur baten begirada tristea baino?), malkoak, ikara, etsipena gero eta maizago baimenik gabe sartu dira gure etxeetara gu lasai-lasai bazkaltzen ari ginelarik.

Kazetaritzako irakasleek hainbertze aldiz aipatzen ziguten Mc Luhanek irakatsi zigun mundua gero eta txikiagoa dela, duela ehun urte hain handia zirudiena komunikabideei esker herri ttipi bihurtzen zaigula. Hori dela medio, gosez hiltzen ziren aurpegiak gabekoak ondorengoek badute orain aurpegia eta telebisitatik edo egunkariko lehen orrialdetik begiratzen digute baina ez diegu kasu handirik egiten guk ere arazo handiak ditugulako, esate baterako alde zaharreko zoruaren inguruko polemika. Bai, Gaviriak arrazoi du. Ongi bizi gara.



asteko pertsonaiak



Patxi Eugi
Pilotaria

■ Agoizkoak lau t'erdiko aurtengo txapelketako bere lehen —eta azken— norgehiagokan porrot egin zuen. Joan den igandean, Labriten, Karmelo Ariznabarretaren aurka 13-22 galdu zuen, eta txapelketatik kanpo geratu zen. Eugik ez zuen norgehiagoka osoan bere tokia aurkitu pilotalekuan, eta bizkaitarrak nahi izan zuena egin zuen, azken emaitza horren lekuko. Agoizkoa ez zion partiduari sasoirik hoberenean aurre egin. Ebakuntza egin berria zuela, erabat osatu gabe heldu zen lau t'erdiko txapelketara. Hala ere, Manomanistako txapelkun gaztea faboritua zen joan den igandeko kaiolako partiduan, eta Ariznabarretaren garaipen erraza ezusteko handi samarra izan zen pilotazaleentzat.



Daniel Unziti
Solidarioa

■ Daniel Unzitik, Itoitzekiko Elkartasuna taldeko kide agoiztarrak, hiru urte eman behar ditu San Roque kaleko kartzelan. Arrazoiak? 1993ko abuztuan, Itoizko urtegiaren aurkako lehendabiziko kanpaldian, autoritateari eraso omen ziola. Unzitik dio ez zuela istiluetan parte hartu, ez zelako han, eta Itoizko Koordinakundeak gauza bera esaten du. Epailera, ordea, ez dator beraiekin bat. Gauzak horrela, Unziti, bere atxiloketa bultzatzeko xedarekin, beste hiru *solidario*-ekin batera Iruñeko Entzuegiaren atarian kateatu zen hormigoiz beteriko bidoi batean, joan den asteartean. «Gure lurra hormigoiz kakaztu nahi dute, eta hormigoiz hori hona ekarri dugu», adierazi zuen Unzitik.

ahaztu gabe!



'MAITASUNA BALTIKOAN'

Iruñea: *Balti Asmastuslood* (Maitasuna Baltikoan) pelikula estoniarra euskaraz azpittulatu ikusgai izanen da Golem zinemetan astelehenean, hilak lau, ilunabarreko zortzietan, eta IKAKo Arturo Kanpion euskaltegiaren eskutik. Peeter Urbla zuzendariaren luzemetraiak lehen saria eskuratu zuen joan den urrian Zarautzen egindako Eremu Urriko Hizkuntzen Zinemaldian. Therese Marie Deffontaines, Flora Gomes eta Ramon Agirrek osatutako epaimahaiak aho batez eman zion saria, «bere argitasunagatik, eszenaratzeko egokiagatik, eta aktoreen interpretazio onagatik». Estonian, Letonian eta Lituaniar gertatutako amodiozko hiru istorioak osatzen dute filmea, eta Baltikoko hiru herri horietako hizkuntzetan egina dago. Peeter Urblarentzat «oso garrantzitsua zen maitasuneko istorioen atzeko testuingurua agertzea, amodiozko harreman horiek inguru soziopolitiko bati loturik erakustea».

adi!

Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, Zokobetailu goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara Karakola segi hola gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gainetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Eulate

Arantzaduiaren bigarren urtebetetzea


Luciano Lapuente, Emilio Redondo eta Arantzadui sariak banatuko dituzte

Arantzadui 94 Ameskoako Ikertaldeak bigarren urtebetetzea ospatuko du hil honen 9an, Zudairen eta Eulaten. Bazkaria egingen dute lehendabizi elkarteko kideek eta lagunak, eta ondoren, biolin kontzertua izanen da Eulateko elizan. Bertan, kontzertuaren atsedendian, aurten sortu Luciano Lapuente, Emilio Redondo eta Arantzadui sariak banatuko dituzte. Jose Maria Jimeno Jurio, Ignacio Barandiaran eta Ana Cava, eta Ameskoako Ikastetxea dira saridunak.

Erredakzioa / Iruñea

ARANTZADUIA 94 Ameskoako Ikertaldeak bigarren urtebetetzea ospatuko du hilaren 9an, Zudairen eta Eulaten. Zudairen, lehendabizi, Irigoien ostatuan, bazkaria egingen dute elkarteko kideek eta lagunak. Ondoren, Eulateko elizan, arratsaldeko bostak aldera, biolin kontzertua izanen da, Francisco Herrero eta Miren Valverderen eskutik. Kontzertuaren atsedendian, halaber, aurten sortu Luciano Lapuente, Emilio Redondo eta Arantzadui sariak banatuko dituzte elkarteko arduradunek.

Joan den urtean, lehendabiziko urtebetetzean, pintura aukeratu zuten Arantzaduiako lagunak hain data azpimarragarria ospatzeko. Pedro Salaberriren eta Alicia Irigoien lanak izan ziren ikusgai. Aurten, berriz, musika aukeratu dute ospa-



Luciano Lapuente saria eskuratuko du igandean Jose Maria Jimeno Juriok.

ARTXIBOKOA

kizuneko protagonista nagusi, biolinaren hotsa zehazki. Bach, Telemann, Pleyel eta Bartoken obrak eskainiko dituzte musikariek.

Eta atsedendian, erran bezala, Arantzaduiak aurten sortutako hiru sariak banatuko dituzte. Sari hauen bidez, Ameskoako kulturaren alde aritutako lana eskertu nahi du Arantzadui taldeak. Luciano Lapuente eta Emilio Redondoren izenak, hain zuzen, euren lana eta eskuzabaltasuna goraiatu eta eredu garri bihurtzeko asmoz aukeratu dituzte.

Luciano Lapuente San Martinen jaio zen 1910. urtean eta

bere bizitzako urte asko Ameskoako etnologia ikertzen eman zituen. Hainbat urtetan aldizkari askotan argitara emandako lanak, hain zuzen, *Las Amescoas*, *Estudio histórico-etnográfico* izenburuko liburuan bildu zituen. Emilio Redondo, berriz, 1917. urtean sortu zen Artatzan. Eskualdeko aztarna arkeologikoen ikertzaile nekazina izan da bera. Bi gizonon lana jende askok ezagutu eta goraiatu du, besteak beste, Jesus Altunak, Joxemiel Barandiaranek, Ignacio Barandiaranek, Ana Cavak, Jose Maria Jimeno Juriok, Fermin Leizaolak, Jose Maria Satrustegik eta Enrique Vallespik. Garcia

de Albizu Arantzaduiako lehendakariak aipatu duenez, Lapuente eta Redondoren lana omendu nahi izan dute, eta horregatik jarri diete euren izena aipatu sariel.

Hiru zerrenda egin zituzten Arantzaduiako kideek eta bertatik aukeratu dituzte aurtengo saridunen izenak: Jose Maria Jimeno Juriok irabazi du Luciano Lapuente saria, Ignacio Barandiaranek eta Ana Cavak Emilio Redondo saria, eta Ameskoako Ikastetxe Publikoak Arantzadui saria. Biolin kontzertuaren atsedendian banatuko dituzte sariak Arantzadui elkarteko arduradunek. X

Beriain

Lodosako taldea garaile igandeko iola txapelketan

Beriaingo La Morera urmaelean izan ziren estropadak

Erredakzioa / Iruñea

JOAN DEN igandean, urriaren 27an zehazki, Nafarroako iola txapelketa egin zuten Beriaingo La Morera urmaelean. Estropada hau, urtero bezala, Nafarroako Arraun Federazioak antolatuta zuten, eta gure herrialdean dauden bi taldeek hartu zuten parte, hau da, Nafarroako Klub Nautikoak eta Lodosako Klub Nautikoak. Gonbidatua, berriz, Donostiako Fortuna taldea izan zen.

Nafarroako Klub Nautikoak hiru talde aurkeztu zituen, senior mailakoak guztiak. Lodosakoek guztira sei talde aurkeztu zituzten, bi kadete, bi gazte, gizonen senior bat eta emakumezkoen se-

nior bat. Donostiarrek, azkenik, bi talde aurkeztu zituzten, gizonen senior bat eta emakumezko beste bat, senior mailakoak biak ere.

Goizeko hamaiketan hasi ziren probak. Kadeteak eta gazteak hasi ziren, eta garaipena lodosarrentzat izan zen. Senior mailako estropada azkena izan zen. Lehiaketa honetan ere Lodosako taldeak irabazi zuen. Nafarroa A-arentzat izan zen bigarren postua, eta hirugarrena Nafarroa B-arentzat. Laugarren Fortuna izan zen.

Igandeko txapelketak erakutsi bezala, iola tradizio handiko modalitatea da Nafarroan. Lau arraunlari eta lemazain bat izaten dira txalupa honetan. X

Tutera

Hilaren 17an egingen dute Amimet Herri Lasterketa

Gutxituak eta ez direnak batera aterako dira

Erredakzioa / Iruñea

ERRIBERAKO Gutxitu Fisikoen Koordinakundeak antolatuta, zortzigarren Amimet Herri Lasterketa prest dago jada, datorren hilaren 17an ospatu ahal izateko. Goizean zehar egingen dute eta, bertan, jakina denez, gutxitu fisikoak eta ez direnek parte hartuko dute elkarrekin.

Amimet Kirol Elkarteak prestatu du aurtengoan ere Tutera eta inguruko herrietako herritarren artean hain ohiartzun zabala eta harrera ona duen lasterketa hau. Erriberako Gutxitu Fisikoen Koordinakundearen babesa ezezik, izan du Ami-

met Kirol Elkarteak Erribera Ateltikoaren eta Nafarroako Ateltismo Epaila eta Kronometratalearen Batzordearen laguntza ere.

Maila ezberdinak izanen dira hilaren 17ko lasterketan Tutera. Gizonen zein emakumezkoen benjamin, alebin, infantil, kadete, junior eta oinezko gutxituen kategoriak, hain zuzen, goizeko hamaika eta erdietan aterako dira, Lourdes auzoko Lasa Aitaren plazatik. Lasterketa nagusia, berriz, arratsaldeko ordu batak aldera hasiko da. Parte hartu nahi duenak, hilaren 17an bertan izanen du izena emateko aukera. X

Lesaka

Gazte Eguna ospatuko dute gaur Jarraik antolatuta

Bertso saioa egingen dute herriko plazan

Jon Abril / Bera

LESAKAKO Jarraik antolatutik, lehenengo aldiz Gazte Eguna ospatuko dute lesakarrek gaur. Ekitaldiak arratsaldeko seietan hasiko dira. Ordu horretan, hain zuzen, kale antzerkia izanen da nagusi Lesakako karraketan. Torturaren gaia jorratuko dute bertan. Ondoren, bertso saioa izanen da herriko plazan, Jon Maia, Unai Iturriaga, Nerea Bruño eta Esteban Martiarenarekin.

Saioa bukatu ondoren, *Euskal gazteria askatu* lelopean manifestazio-kalejira egingen dute karriz karriz. Berako Larrakaitz txaranga eta Atarrabiako malabaristak eta animatzaileak ibilbide osoan ariko dira.

Arratsaldeko bederatzia aldera eta parke zaharrean, bideoak eskainiko dituzte, musikalak zein bertzelakoak. Ordubete geroago, berriz, leku berean rock kontzertua hasiko da. Koma, Bizkar Hezurra eta EH Sukarra taldeak ariko dira Lesakako lehenengo Gazte Egun honetan. Kontzertura joan nahi duenak jakin dezala 1.000 pezetan (40 libera) izanen direla salgai sarrerak. X

Larraintzar

Ultzamako Euskararen Eguna ospatuko dute igandean

Morkotx gazte taldeak antolatu du

Erredakzioa / Iruñea

IGANDE honetan Ultzamako Euskararen Eguna ospatuko dute Larraintzarren. Egunean zehar zenbait ekitaldi egingen dituzte herriko pilotalekuan edo eskoletan, eguraldiaren arabera. Igandeko jaiegun hau herriko Morkotx gazte taldeak antolatu du. Ekitaldiak goiz partean hasiko dira. Lehenik eta behin, haurrentzako jokoak prestatu dituzte antolatzailerik. Malabareak ikusteko eta ikasteko aukera ere izanen dute haur eta gaztetxoek igandean Larraintzarren. Halaber, Ortzadar dantza taldeak bere ikuskizuna aurkeztuko du herrian. Herri kirolek ere izanen dute parte Ultzamako Euskararen Egunean, aizkolariak izanen dira hain zuzen ere.

Eguerdian, bestalde, herri bazkaria egingen dute herritarrek eta bazkalostean, bertso-lariek eta akordeoilariek alaituko dute giroa. Ultzamako eta inguruko herritar guztiei luzatu die gonbidapena Larraintzarko Morkotx gazte taldeak bailarako euskararen egunean parte har dezaten. X

Ferreriako eta Ergako
tunelak aztergai

Tunelaren irtenbidearen bila

Ergako tuneletako porlana hiru aldiz erori ondoren, azterketa egiten ari da Geoconsult

Geoconsult Madrilgo enpresako kideak Irurtzun-Andoain autobioiko Ferreria eta Ergako tunelak aztertzen ari dira, joan den urteko urrian eta aurtengo uztailean eta urrian gertatu gunita altxatuak direla eta. Tunela egin ondoren botatzen den hormigoi geruza da gunita. Azterketaren helburua honen egoera ezagutzea da beharrezko konponketak egin ahal izateko, behingoz tunelaren irtenbidea aurkitzeko.

Edurne Elizondo / Iruñea

URRIAREN 24az geroztik Irurtzun-Andoain autobian dauden Ferreria eta Ergako tunel bikotzak aztertzen ari dira Madrilgo Geoconsult enpresako kideak, Nafarroako Gobernuko Herrilan Sailak deituta. Ergako tunelean autobia zabaldu zutenetik eta orain artean gertatu hiru jazorek sortu dute sail honetako arduradunen kezka. Izan ere, 1995. urteko urrian, joan den uztailean, eta bukatu berri den urrian, Ergako tuneleko sabaitik pareta estaltzen duen gunita puskak eta honen gainean dagoen impermeabilizazio xafla puskak erori dira erreperidera.

Iruñetik Donostiarako bidean, Ferreriako da lehenengo tunela, eta Ergakoa bigarrena. Ferreriakoan jazoerarik gertatu ez bada ere, biak aztertzen ari dira Geoconsult enpresako kideak, ezaugarri berberak dituzten tunelak baitira. Hilaren 24an Ferreriako eskuineko tunelean —Iruñetik Donostiarako norabidean— hasi ziren lanean, lehendabizi eskuinaldeko bi tunelak egitea baita Geoconsulteko langileen asmoa. Hauek bukatuta, Ferreria eta Ergako ezkerreko tuneletan hasiko dira lanean, datorren astean ziurrenik.

Oro har, 472 zundaketa eginen dituzte tuneletan, eta horietako 50etan gunita puskak aterako dituzte. Gunita, tunela egin ondoren botatzen den hormigoi geruza da. Bere helburua ez da tunelari eustea, baizik eta pareta estaltzea, besteak beste, ura edo harri puska txikiak erreperidera eror ez daitezen. Gunitaren gainean, berriz, plastikozko impermeabilizazio xafla jartzen da.


Herrilan Sailak eskatu azterketaren bidez, gunitaren egoera zein den ezagutuko dute Geoconsult enpresako kideak. 422 zundaketa ezberdinen bidez, tokian ikusiko dute gunita nola dagoen, hau da, zein lodiera duen, bere erresistentzia, trinkotzea eta abar. Beste 50 gunita lagin, berriz, laboratoriora aztertuko ditu enpresak. Azterketa bukatuta, txostena osatuko dute Geoconsulteko kideak, eta horren arabera, neurri zehatzak hartuko ditu Nafarroako Gobernuko Herrilan Sailak tunelak konpontzeko. Hasierako aurreikuspenen arabera, hamabost egun beharko dituzte neurketak egiteko eta beste hamabost datuak lortzeko Geoconsulteko kideak.

Zundaketak egiteko, aurretik prestatutako mapa antzekoa erabiltzen ari dira Geoconsultekoak. Bederatzi metrero sei puntutan egiten dituzte zundaketak. Hala ere, baliteke hainbat lekutan aurreikusitakoa baino zundaketa gehiago egitea.



Ergako tuneletan gertatu dira orain arteko hiru gunita altxatuak.

OSKAR MONTERO



Gunita. Erreperidera lurrik edo bestelako zaborrik eror ez dadin proiektatzen den hormigoiari deitzen zaio.

Marga. Arroka mota bat da. Hori dela eta sortu dira arazoak tunelean.

Marga faila Ergako tuneletan. Geoconsult enpresak bere txostena prestatu arte ziurtatu ezin badaiteke ere, Jesus Gonzalez Albero Herrilan Saileko Erreperideetako Zerbitzuko zuzendariaren arabera, Ergako tunelak zeh-

harkatzen dituen marga failak eragin ditu orain arte bertan gertatu diren hiru gunita askatzeak.

Tunela egiten hasi baino lehen ere bazekiten Herrilan Saileko arduradunek marga faila hor

zegoela. Hartutako neurriak inolako arazorik ez izateko nahikoak izanzen zirela uste zuten. Baina ez da horrela gertatu. Aldatu gabe dagoenean, nahiko erresistentzia duen haitza da marga, baina aldatzen denean, erresistentzia ho-

ri pixkanaka galtzen du. Ergako tuneletan gertatu diren hiru gunita askatzeak, hain zuzen, karrizko mazozoaren artean dagoen marga fallan gertatu dira. «Beraz, ia ziur gaude faila horrek eragin dituela hiru jazoerak. Al-

Ferreriako eta Ergako tunelak aztergai

datuenez, eta ura dela eta, de-
segin egin da altxatuak sortuz»,
azaldu digu Jesus Gonzalezek.

Kurioski, gunitako altxatuak
ez dira marga failaren erdian
gertatu, maila honek kararria-
rekin bat egiten duen lekuetan
baizik. Antza denez, eta Jesus
Gonzalezek aipatu duenez, «tem-
peratura aldaketak eta hezeta-
sunak eragin handiena duten
lekua hori da». Ergako tuneleta-
ko kasuistika hau ez da Ferrer-
riakoetan errepikatzen. Iruñetik
Donostiarako bidean lehenen-
goak diren hauek, hain zuzen,
mazizo harritsu homogeenoa,
trinko, gogor eta osasuntsu ba-
tean daude kokatuta. «Eta horrek
Ergako altxatuak marga failak
sortu dituen hipotesia indartu

tan, uztailaren 21ean gertatuta-
koak batez ere, lau orduko erre-
tentzioak eragin baitzituen. Hala
ere, ikuspuntu teknikotik ez dute
garrantzi handirik Jesus Gon-
zalezek nabarmendu duenez.
«Erori diren gunita puskek ez zi-
ren handiak, baina gunita eror-
tzean plastikozko xafra zati han-
diagoak botatzen ditu bidean.
Dena baino ikusgarriagoa ema-
ten du». Metro karratu inguruko
gunita puska batek, adibidez, 25
metro karratuko plastikozko xa-
fla bota dezake.

Errepideetako Zerbitzuko zu-
zendariaren aburuz, halaber,
kontuan hartu behar da tunelak
egitea oso zaila dela. «Nahiz eta
proiektuak oso ongi egin, inoiz ez
dakigu zer aurkituko dugun.

Jesus Gonzalez Albero: «*la ziur gaude marga failak eragin
dituela gunita altxatuak Ergako tuneletan*»

Antton Jaime: «*Irurtzun-Andoain bezalako obra handi
batean ohikoa da arazo puntualak sortzea*»

baino ez du egiten», azpimarratu
du Nafarroako Gobernuaren Erre-
pideetako Zerbitzuko zuzenda-
riak.

Geoconsult Madrilgo enpresak
bere neurketak egin eta txostena
osatuta dagoenean Ergako tune-
letako arazoak marga failak era-
gin dituela frogatuta gelditzen
bada, har daitezkeen neurriak
edo soluziobideak ugariak dira.
Jesus Gonzalezek aipatu digu-
nez. Baina bada guztien artean
Nafarroako tuneletan erabiltzeko
aukera gehien duen bat jakina-
razi digunez, oinarrikoena eta
egiteko azkarrena delako. Lehe-
ngo eta behin gunita estaltzen
duen plastikozko inpermeabili-
zazio xafra kendu beharko dute.
Hori eginda, gunita geruza kon-
ponduko dute gaizki egon daitez-
keen zatiak berriro estaliz. Gu-
nitaren gainean eta berau babes-
teko, ondoren, sare bat jarri be-
harko dute, eta honen gainean,
beste gunita geruza bat botako
dute. Honen gainean, plastikoz-
ko inpermeabilizazio xafra jarri
beharko dute berriro.

Ergako tuneletan sortutako
altxatuak konpontzeko ziurrenik
sistema hau erabiliko badute ere,
Herrilan Saileko arduradunek
oraindik ez dute erabaki konpon-
keta altxatuak dauden lekuetan
bakarrik, Ergako bi tuneletan
edo Erga eta Ferreriako lau tu-
neletan egiten duten.

Urritza, Azpiz eta Pagozelai-
ko tuneletan, behintzat, ez dutela
konponketarik egiten ziurtatu
digu Jesus Gonzalezek, oraingoz
ez baita Ergako tuneletan ger-
tatutakoa jazo tunel hauetan.
Gainera, tunel hauen eta Ferreria
eta Ergako tipologia erabat ez-
berdina dela erran beharra dago.
Urritzakoak, esate baterako, ar-
tifizialak dira. Azpizkoak, ber-
riz, hormigoizko 40 zentimetro-
ko hariak daude estalita. Pago-
zelakoak, azkenik, tunel artifi-
zial txikiak dira.

**Teknikoki, garrantzirik
gabekoak** • Ergako tuneletan
gertatu hiru altxatuak oihartzun
zabala izan dute komunikabide-

Ziurgabetasun puntu bat dago
beti».

Antton Jaime Gipuzkoako Foru
Aldundiko Errepideetako Zerbi-
tzuko zuzendaria ere iritzi bere-
koa da. Irurtzun-Andoain auto-
biaren Gipuzkoako zatiko tune-
letan, dena den, ez da oraingoz
arazorik gertatu. Iruñetik Donos-
tiarako norabidean, hain zuzen,
Gorosmendi, San Lorentzo, Be-
labieta eta Oindolarko tunelak
daude Nafarroako ondoren.

Jesus Gonzalezek bezala, tu-
nelak eraikuntza arriskutsuak
dira uste du Antton Jaimek eta
normaltzat jo ditu Nafarroako
Ergako tuneletan gertatutakoak.
«Irurtzun-Andoain bezalako obra
handi batean ohikoa da arazo
puntualak sortzea eta Nafarroan
gertatu direnak ere oso arazo
zehatzak dira». Gipuzkoan, bes-
talde, tuneletan gertatu ez badira
ere, izan dute bestelako arazorik
autobian ere. Otsailean, hain
zuzen, lubizia gertatu zen.

ERGAKO tuneletan joan
den urteko urrian hasi
ziren arazoak. Iruñetik
Donostiarako norabidean
eskuineko tunelean al-
txatu zen lehenik gunita.
Eskuineko paretatik gu-
nita eta plastikozko xafra
puska bat erori zen erre-
pidera. Baina tuneleko
espaloitik oso gertu erori
zenez, gertakizunak ez
zuen autoen trafikoa ino-
lako eraginik izan. Al-
txatua konpondu eta leku
berean ez da horrelakorik
gertatu. Marga failaren
lehen abisua izan zen.

Bigarrena aurtengo
udan gertatu zen, uztai-
laren 21ean hain zuzen.
Honetan tuneleko klabe
edo goiko aldetik erori zen
gunita eta errepide erdian
geratu. Donostiatik Iru-
ñera doan errepidean al-

txatu zen, arratsaldeko
seiak aldera. Ordu horre-
tan, hain zuzen, Donos-
tiako hondartzan eguna
igarotako nafarrak eta
Elizondoko Baztandarren
Biltzarran egondakoak
etxera bidean ziren. On-
dorior, bost ordu ingu-
ruko errentzioak paira-
tu behar izan zituzten gi-
darien. Auto batek, gaine-
ra, kalte materialak izan
zitu, gunita gainera
erori ez bazitzaion ere,
gurpilekin zapaldu zue-
lako. Nafarroako Gober-
nuko langileak hainbat
egun izan ziren lanean,
eta bitartean eskuineko
errepidean, Irurtzundik
Andoainera daraman
errepidean hain justu, bi
norabideko zirkulazioa
izan zen bi kilometrotan
zehar, gutxi gora-behera.

Azken gertakizuna
urriaren 6an jazo zen Er-
gako Iruñetik Donostia-
rako norabideko tune-
lean, gaueko hamarrak
laurden gutxiak aldera.
Aldi honetan, errepideko
eskuineko bidean erori
zen gunita. Zirkulazioa
eten egin ez bazen ere,
bide bakar batera mugatu
zuten, eta hasiera batean
kamioi eta autobusen
trafikoa debekatu egin
zuten. Uztailean ez beza-
la, dena den, ez zen ino-
lako auto ilararik sortu.

Baina Irurtzun-Andoain
autobia zabaldu zutenetik
ez dira Ergako tuneletako
arazoak errepide honetan
izandako bakarrak. Donostian
ere izan dituzte, baina ez tu-
neletan. Otsailean, hain
zuzen, lur-jausi garran-

tzitsu bat izan zen.
Inausketa handia egin be-
har izan zuten lubizia
kontrolatu ahal izateko.

Zabaldu aurretik ere
buruhauste bat baino ge-
hiago sortu die Irurtzun-
Andoain autobiak Nafa-
rroa eta Gipuzkoako tek-
nikari eta agintariak.
Urritzako tuneletan ger-
tatutakoa izan zen horie-
tako bat. Eta oraindik
teknikariak ez dira ados
jarri arazo hori sortu zuen
arrazoiari buruz.

Urritzako tunelak, bat
norabide bakoitzean, ar-
tifizialak dira. Indusketa
egin zuten lehendabizi,
eta ondoren, gainean
deus izan gabe, tunelak
eraiki zituzten. Behin tu-
nelak eraikita, hainbat
geruzarekin estali zuten
tunelen klabearen gaine-

tik hoge metroko altuera
lortu arte. Arazoa tunelak
egindakoan agertu zen:
ibairantz okertu ziren.

Fenomeno hori azal-
tzeko, erran bezala, teoria
ezberdin bat du orain ar-
tean bertatik igaro den
teknikari bakoitzak. Eta
asko izan dira, Jesus
Gonzalezek erran digu-
nez. Batzuen ustez, adi-
bidez, mendiaren indar-
raz mugitu ziren tunelak
ibairantz. Beste batzuen
iduriko, berriz, geruzak
asimetriko jarri zituz-
ten, alde bat bestea baino
gehiago betez, eta horrek
tunelen mugimendua
eragin zuen. Urritzako
tunelena, beraz, arazo
konplexua zen, egituraz-
koa alegia. Eta konpon-
tzeko, tunelak haitzean
ainguratu zituzten. X



Geoconsult Madrilgo enpresako kideak zundaketak egiten ari dira tuneletan.

OSKAR MONTERO

Hiru aldiz tunel berean

Xanti Begiristain

Enplegua eta mugikortasuna: minusbaliotasun fisikoa duten pertsonen autonomiaren alde

■ Hauxe duzue aurrean, Nafarroako Gutzitu Fisioko Koordinakunde Elkargoak aukeratu duen jardunaldien izenburua.

Izan ere, urterot bezala, udazken honetan ere Nafarroako Koordinakundeak antolatu ditu aurtengo jardunaldiak. Dagoeneko hasita daude. Lehendabizikoa bi saioak urriaren 28 eta 29an izan dira, eta beste biak azaroaren 4 eta 5ean izan dira. Aipaturiko jardunaldiak ilunabarreko zazpi eta erdietan egiten ari dira Iruñeko Udal Aurrezki Kutxako hitzaldi aretoan, Armada etorbideko 2. zenbakian.

Honako hauexek dituzue jardunaldi bakoitzaren izenburua eta partaideen izenak:

1.- Minusbaliotasuna duten pertsonak eta enplegua: sustapen neurriak. Partaideak: Alfonso Redin, Miguel Ibañez Goikoetxea, Ana Casataño, Jesus Rekalde eta Angel Jimenez.

2.- Minusbaliotasuna duten pertsonak eta enplegua: esperientziak. Partaideak: Eloy Burgi, Abel Sanz, Santiago Rodriguez Santacruz eta Javier Pueyo.

3.- Garraio publiko kolektiboaren egokitzapena. Partaideak: Miguel Izu, Xanti Begiristain, Lidia Biurrun eta Oscar Sbert.

4.- Helgarritasuna gure ingurunean: hainbat errealitate. Partaideak: Martin Jose Oteitza, Julia Torrado, Paco Monente eta Carlos Rodriguez Mahou.

Ikusten denez badago gairik eta non ariturik.

Niri dagokidanez, egokitu zait mintzatzea garraio publiko kolektiboaren egokitzapenaz, eta aitzakia hori hartuta, hemen aprobeztatu behar dut gai hori luze eta zabalago azaldu eta sakontzeko.

Hasteko eta behin esan behar dut arazo hau ez dela batere berria Nafarroan, izan ere, herrialde honetako Koordinakundeak dagoeneko hemezortzi bat urte daramatza eragozpen hori konpon dadin aldarrikatzen eta eskatzen erakundeak. Esan bezala, zoritxarrez gaur egun egoera bertsuan gaude eta oraindik lanean jarraitu beharra dago arlo honetan.

Inor gutxi onar lezake autobusetara sartzea debekatzea, esate baterako, beste arraza batzuetako pertsonak, emakumezkoak, eta abar; eskandalagarria izan litezake. Mugikortasun murrizteko pertsonak, ordea, ez dugu sartzetik garraio publikoko ibilgailu bakar batera ere ia-ia. Zergatik? Kartelxo baten bidez debekatzen digutelako? Ez noski! Hitzaz eta letraz ez digu inortok ere

galarazten, baina praktikan horixe da egia. Egunero jasaten ditugu menpekotasun, bazterkeria, bereizkeria eta autozokoraketa egoerak aurrekoaren ondorioz. Hala eta guztiz ere, gizarte honetan oso jende gutxi eskandalizatzen da gertaera horrekin.

Nafarroan dugun legedia honako hau da, 57 Foru Dekretua / 1990eko Araudia, garraioetako oztopo fisiko eta sentsorialak kentzeko. Horri buruz funtsezko bi gauza esan behar ditugu, alegia, batetik oso ahaztuta dutela horren arduradun eta erantzukizundunek, eta bestetik araudi hori oso eskasa eta kaskarra dela, ez baitu zehazten nola moldatu behar diren ibilgailuak gupil-aulkiaz berruraino sartzeko.

Garraio publiko kolektibo egokiturik ez baldin



badago, orduan mugikortasun murrizteko pertsona gehienok ekitaldi eta ekintza asko utzi behar izaten ditugu egin gabe, horrek guztiak dakartzan zailtasun fisiko, ekonomiko eta psikologikoengatik, esate baterako alor hauexetan, besteak beste: heziketa, aisialdia, lana, osasunbidea, kirola, kultura, gizarte harremanak eta abar.

Orain arte eman diren konponbideak: Gurutze Gorriak dituen hiruzpalau ibilgailuak eta Koordinakundeak duen bakarra. Hauekin etxez etxe izeneko zerbitzuak egiten dira mugikortasun arazo larriak dituzten pertsonentzat. Eskaerak eskaintza gainditzen du nabarmenki. Orain Iruñean badaude sei bat eurotaxi baina oraindik ez dira lortu bonotaxiak. Hauek lortuta ere, zerbitzuak askoz garestiago ateratzen dira.

Teknikoki arazo guztiak konponbidea dute garraio publiko kolektiboaren egokitzeko, baina oraindik lan handia dago egin gabe, eta beraz, eginkizun. Nafarroa osoan hiru garraio-enpresa baino ez omen dago, beren autobusetakoren bat egokitua duena lineaz kanpoko zerbitzua egiteko.

Ikusten duzuenaz, garraio publikoari dagokionez, gure egoera oso petrala eta txarra da. Lagun jezaguzue ba. ■

Klasiko bitxi, arront klasiko

Joxemiel Bidador

Joxe Eltzo Azpiazu olerkari gaztea

■ «Sartu zaiz / Kutuna / Nere biotz barrura / Une baten ber-bertan / Egon zaite zeletan / Ikusi beregan / Zer gertatzen ote dan. Ikusi / Maitea / Nola dagon asean / Maitasun on txukunez / Sartu zaiz / Kutuna / Nere biotz barrura!» (Maiteari).

Jose Eltzo Azpiazu mende hasmentako euskal olerkaririk bikainenetakoa genukeen horren gazte hil ez balitz. Alabaina, 22 urte baino besterik ez zituenean Astigarragan zendu zitzaigun, 1916.eko urriaren 20an. Donostian dagoen jarana barrideko Muelle karrikaren lehendabizikoa zenbakian genuen sorturik, 1894.eko azaroaren 10ean hain zuzen ere, eta Errenderin ziharduen lehen hezkuntzako maisu, hil baino apur bat lehen-txeago soilik piano ikasketak burutuak zituelarik Madrilén. Bizi zela, ezezaguna zen bere idazteko grina, 1914.eko lore jokuetan plazaratu zituen garaiko euskal aldirikaritan. Olerkia zuen bereziki jorratu esparru idatzia. Artetxeri jarraikiz Eltzo hil orduko bi liburutxo zituen onduak olerkiez batik bat, *Euskal Esnalea*, *Euskal Erria* eta *Euskalerraren Alde* aldirikaritan argitara eman ziren gehien bat. Olerkari bezala laido eta lausengu ugari jaso ditu donostiarrak, esaterako Artetxerengandik: «Esan genezake Eltzo maitetasunaren eusko olerkaria dala (...) Eltzori olerki maitakorra darto ezkutuko iturriak ur garbi eta gozoa darion bezala (...) Xamurtasunaren olerkariya benetan. Maitekortasun ezititsua izanik baita sendoa, gosua añakoa» (Eltzo olerkariya. Yakintza, 1933, 81 or.). Bihoa adibide bat: «Nik maite zaitut kutun nerea / Beste ñor ez bezala / Dakitalako aingerutxo bat / Garbi garbiya zerala / Maite nazazu zuk ere beti / Bada aguro bestela / Samintasunak eramango nau / Mundu ontatik bestera. A banintzake txori txiki bat / Arin ta egalariya / Ega egaka zuzan joateko / Nere maite bereziya / A banintzake lore apal bat / Zure baratzan aziya / Zure ondoan bizitze arren / Amaitu arte biziya» (Zuri). Gregorio Mujikak honelaxe zioen berriz: «Ura zan olerki polit, bigun sakon, goxo, errex, ta egiazkoa! Beste olerkari guzien aurretik laister jarriko zala gure Eltzo ori, uste izan genuen orduntxe», baina herioak Donostiako berekin eraman zuela, On Gregoriok sentitu nahasmenta honela azaleratu zuen haserreturik: «Bein azalduko orrelako bat eta 22 urte zituala il bear» (Eltzo Azpiazu, *Euskal Esnalea*, 1916, 296 or.). Nonbait Eltzok bereak herioaren gaia oso barneraturik zeukan gauza zatekeen: «Sarri sarritan egiten diot / Jaungoikoari otolza / Ez dezala arren geyago mindu / Ume zurtzaren biyotza / Eriotzak in amaitzen bada / Nere izalite garraza / Betor aguro Jaungoiko ona / Betor nigan eriotza» (Ume zurtzaren negarra). Baina bestelako olerki alaiagoak ere bazituen.

Hitz lauz eginkorik ere utzi zigun gutxiago izan baziren ere. *Euskal Esnalea* aldirikaritan argitara eman zituen lehendabizikoa idazkiak, egia esateko, izkirimiriak izeneko far eragiteko prosazko idazki laburrak ziren: «—Nundik ator mutiko? —An goitike. —Nora ua. —An bera. —Aita nun dek? —Beyakin jauna. —Beyak nun dira ba? —Aitakin jauna. —Bapo ziok... —Ez jauna, ez; lanian ari da sendo. —Iasko jakiña aiz noski? —Orla orla. —Amerika nun dagon badakik? —Bai jauna. Nun dago ba? —Gure Martiñ juantzan lekuan. —Ba... aspertu nauk oraintzen ire berriketakin; erantzun eidak jator, galduta nebilke eta; zein da an len ageri dan erri ura? —Gure erriya. —Zein da ba zuen erriya? —An be-bian ageri dan ura...Zer? Igesi aldirua? Jaunak lagun beyo ba, ta ifioiz ezer jakin nai ezker, galdetu galdetu...» (Galdetu, galdetu). Halaber antzertilan bat ere ondu bide zuen, lore jokuetan aurkezteko asmoz, baina damu antza, etzuen parte hartu nahi izan sariketan eta egun arras ezezaguna jazo zaigu nonbaiten galdurik darraiena.

Euskaltzale amorratua, *Euskal Esnalea* aldirikarikoek antolatu izkirimiri lehiaketan saritua gertatu zen eta, sariarekin batera gutun bat helarazi zioten zorian agurrak emateko, artan bere ogibideaz aipu egiten ziotela, haurrei euskara irakasteko artaren garrantziaz ohartarazteko, eta bereak honelaxe ihardetsi zien: «Ama euskerea gaizkatzeko, guztiyen alak batu bear dira: ¿Ez dakusku ba gure ele txukunaren etsal alixak berai ito nayeian geroz gerozago sayatzen dirala? Besoak bular gañetan jarrita amaren zoritxarra aldendu nai ez duan semea gaixtoa da edo zoroa. Ez det uste zoroa ñalzenik, eta gaixtoa ez det izan nai. Nik euskerea maite det, euskalduna naiz eta; nik seaskatik oiñarte ezpañetan darabilten ele kutun oni edozer zor diot.» ■



Nafarroako taldekako txapelketako maila nagusiko bigarren jardunaldiko partida, 1996ko urriaren 19an jokatu.

Manolo Redin (Iruñeko Alde Zaharra), 2.190 ELOkoa — Unai Garbisu (Iruñeko Orvina A), 2.375 ELOkoa.

1.e4,e5; 2.f4,Ac5; 3.Zf3,d6; 4.c3,Zf6; 5.d4,d4; 6.d4,Ab6; 7.e5,Ze4; 8.Zc3,d5; 9.Ad3,Zc6; 10.Ae3,Ag4; 11.Ab5,0-0; 12.0-0,Ze7; 13.h3,Zf5; 14.Dd3,Af3; 15.Gf3,c6; 16.Aa4,Dd7; 17.Ac2.

Ez da alferrikako mugimendua. Eraso lerroa sortu da hor, aukeraren zain.

17....g6; 18.Gd1,fZ-g3; 19.Eh2,Zc3; 20.c3,Zf5; 21.Af2,Zg7; 22.g4.

Zaldiaren atzeratze horretaz baliatuz, berehalako eraso, une egokian.

22....f5; 23.f6,Gf6; 24.Ah4,Gf7; 25.f5,aG-f8; 26.dG-f1,f5; 27.f5.

Errege txuria ere babesgabea dirudien arren, beltzak dira larri samar daudenak.

27....Ad8; 28.f6.


'Dh7' matea da mehatxua.

28....Ze8; 29.Gg1 xa,Eh8; 30.Gg7.

Ikus koadroa. Jokaldi hilgarria izan da. Zaldiaz ezin jan. Gazteluaz ezta ere (trukoen ondoren matea dago).

30....Gg8; 31.Dh7 xa mate.

Erasotzeka ueña ongi aukeratu zuten txuriek.



Donamartiriko leizeak, paleolitikoaren santutegia

Kobazuloetako arduradunek bultzada eman nahi diete Eusko Arkeologia taldearen laguntzaz

Urtero 80.000 bisitari baino gehiago hurbiltzen dira Donamartiriko leizeak ikustera. Oxozelaia, Erburua eta Izturitzeko leizeak, baina, guztiz ezezagunak dira euskal herritar askorentzat. Kobazuloetako arduradunek bultzada eman nahi diete Eusko Arkeologia taldearen laguntzaz, ekimen eta ikastaro berriak prestatuz.

Julen Arriola / Donamartiri.

IZTURITZE eta Donamartiri herrixkak batzen dituen errepidearen gainean kokatuak, Oxozelaia, Erburua eta Izturitzeko leizeak guztiz ezezagunak dira oraindik euskal herritarrentzat, nahiz eta urtero 80.000tik gora bisitari hurbiltzen den bertara. Udako hilabeteetan Ipar Euskal Herrira hurbiltzen diren turistak helburu izan ohi dira leizeok, baina Gazteluko mendixka —bertan kokatzen dira— monumentu historiko izendatu ondoren, eta Eusko Arkeologia elkar-tearekin batera abian jarritako hainbat ekimenen bidez, bultzada eman nahi diete kobazulo hauei bertako arduradunek.

Adituek diotenez, Kristo Aurreko 50.000 urtetik Brontze Arora arte bizi izan da jendea Donamartiriko leizeetan. Gaur egun, Erburua bailara ederrean kokatuak, Gazteluko mendixka zultzen duten hiru kobak urtean zortzi hilabetez egoten dira zabalik. Udaberriaren eta udazkenean ikastetxeetako eta adineko taldeak hurbiltzen dira bertara, batez ere; uztailean eta abuztuan, berriz, turistak —ingelesak batez ere— eta familiak dira bisitari gehienak.

«Bisitari mota aldatzen ari dela konturatu gara —azaldu digu Joëlle Darricau zuzendariak—, jada ez da ohiko turista, turismo kultural askoz formatuagoa etortzen da orain. Eta Geologia edo historiaurreari buruz duten kezka erantzuna eman behar dugu». Urteko sasoiaren arabera ere, ezberdina da leizeetara joaten den bisitari mota: «Ez da gauza bera udan talde handien aurrean hitz egitea, edo orain, zortzi laguneko taldea dugu-nean». Hau guztia dela eta, kobazuloetako gidariak hobeto prestatu behar izan dituzte bertako arduradunek. Datorren denboralditik aurrera, hain zuzen, leizeetako geologiari buruz eta jendea bertan bizi izan den historiaurreko garai ezberdinei buruz informazioa eskainiko dute gidariek.

Eskualdeko biztanleek Donamartiriko leizeetatik bakarria ezagutu izan dute betidanik, Izturitzeko alegia.

Oxozelaia 1929. urtean aurkitu zuen Etxegaraiak, mendi magalean dagoen errotako jabeak. Kobazuloetako sarrera ehizean ari zela aurkitu zuen. Erburua, 1973. urtera arte ez zuen aurkitu



Oxozelaiko leizean buztinazko objektuak, zaldien margoak eta animalien hezurak aurki daitezke.

JULEN ARRIOLA

Eskualdeko biztanleek Donamartiriko leizeetatik bakarria ezagutu izan dute betidanik, Izturitzeko alegia. Otsozelaia 1929an eta Erburua 1973an aurkitu zituzten.

tokiko jabeak, Jean Daniel Darricauk. Nolanahi ere, Gazteluko mendixkak betidanik erakarri ditu bailarako biztanleak. *Lamina Siloa* erraten zioten hauek. Hiru leizeak Erburua ibaiak sortu ditu mendeetan zehar. Lur lohitsuak, gainera, urak berez duen indarra handitu du, milaka urtetan zehar.

Paleolitikoaren santutegia • Nafarroa Behereko historiaren Donamartiriko 500 mende gordetzen dituzte leizeak, adituek erraten dutenez, frogatua baitago Kristo Aurreko 50.000 urtetik Brontze Arora arte jendea bizi izan dela bertan. Izturitzeko paleolitikoaren santutegizat jotzen dute eta Europako garrantzitsuenetat, bere balio arkeologikoa dela eta. Mendixka alde batetik bestera zeharkatzen du parez pare doazen bi galerien bidez. Ikusgarriena bertan dagoen *gela* handia da. Egindako ikerketek frogatu dute leize honetan garai Musterianotik Magdaleniarra



Izturitzeko Paleolitikoaren santutegizat jotzen da, Europako garrantzitsuenetakotzat.

JULEN ARRIOLA

arte bizi izan dela bertan jendea, Historiaurrean. Ikertzaileek aztarna ugari aurkitu dute: sukariak, gezi muturrak, makilak, marrazkiak eta baita mota askotako oskoldunak ere. Azken hauek, Euskal Herria itsasoko uren azpian egon den garai luzearen lekuko dira.

Guztiz ezberdina da Oxozelaiko leizea. Bertan bustinazko objektuak, zaldien margoak eta animalien hezurak aurkitu ezezik, bere estalaktita eta estalagmiten bidez osatutako formen edertasuna da gauzarik deigarriena. Bitxiak eta ikusgarriak dira oso. Hori dela eta, izen exotikoak aukeratu dituzte bertako areto ugari bataiatzeko inguruko herritarrek, hala nola, *Mila eta bat gauen Jauregia*, *Bhudaren Tenplua* edo *Txinatar Pagoda*.

Hirugarren leizea, Erburua, itxita dago, zientifiko talde bat kobazuloa ikertzen ari baita.

Hiru leizeetan aurkitu izan diren gauzen artean 29 makilek osatu bilduma da, agian, ikusgarriena. Eguzki diskoak, kiribilak eta borobilak dituzte zizelata. Kobazuloetan aurkitutako aztarna gehienak Parisko Saint-Germain-en Laye-ko Museo Nazionalean daude.

Hiru leizeetan aurkitu izan diren gauzen artean 29 makilak osatu bilduma da, agian, ikusgarriena. Eguzki diskoak, kiribilak eta biribilak dituzte zizelkatuak.

Publiko berria erakarri • Izturitze eta Oxozelaia, haitzetan egindako 86 harmailen bidez baturik daude, 1953. urteaz geroztik. Honela, biak aldi berean bisita daitezke, 40 minutu inguru irauten duen ibilaldia eginez. Oro har, leizeetako bisitak, Rene Mirailh-ek zuzenduta, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez egin daitezke. Mirailh kobetako zaindaria da. Berak gidatutako bisitetan, hamaika bitxikeria kontatzeko gai da, marrazkiak oihartzunaren bidez bilatzen zituen ikertzaile errusiarrena tartean.

Oxozelaiko estalagmiten gainean txalapartaren antzeko zerbait jotzeko gai ere bada, «gure arbasoek musika ezagutzen» zutela ziurtatuz.

Kobetako arduradunek Euskal Herriko jendea erakartzeko kanpainari ekin diote aurretik. «Udan turistak ditugu bisitari, baina udaberriaren eta udazkenean beste publiko mota erakarri nahi dugu, eskolak, ikastolak eta abar».

Horretarako, Eusko Arkeologia elkar-tearekin elkarlanean, sukaria lantzeko, sua egiteko, onda jaurtikitzeko eta azterketa arkeologikoak egiten ikasteko tailerrak prestatzeko proiektua jarri dute abian. X

◆ **Concepcion Corera** ◆ NUPeko Gizarte Lan Departamentuko zuzendaria

«Gizarte lanak inplikazioa eskatzen du»

Astearte eta osteguna bitartean, Hirugarren Gizarte Lan Mintegia egin dute alor horretako irakasle, ikasle, aditu eta ikerlariak Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP), **Gizarte baztertzea eta gizarte lana** izenburupean. Gai honi buruz eta mintegiari berari buruz mintzatu gara **Concepcion Corera** Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Lan Departamentuko zuzendariarekin.

Edurne Elizondo / Iruñea

JOAN DEN asteartean hasi eta ostegunean bukatu zen aurtien Iruñean egin den gizarte lanari buruzko mintegia. Irekiera ekitaldia amaitu bezain pronto izan genuen Concepcion Corerarekin hitz egiteko aukera.

■ **Gizarte baztertzea aukeratu duzue hirugarren mintegi honen gai nagusitzat, zergatik?**

Gai hau aukeratu dugu uste dugulako gizarteak bazter uzten dituen pertsonentzat garrantzi handiko arazoa dela hau, sofrimendu anitz sortarazten duena. Beraz, nahiz eta, Nafarroan adibidez, kuantitatiboki baztertuak anitz ez izan, gaia oso garrantzitsua da. Eta gutzat funtsezkoa da aztertzea eta ikertzea jakiteko baztertearen aurka nola borroka gaitezkeen. Gure ustez, arazo hau gainditu egin daiteke. Egia da gizarte ezberdintasuna eta baztertzea egiturazko arazoak direla, baina, halaber, egia da gizarteak oso ongi funtzionatu arren beti izanen direla gizarte horrek bazter utzitako pertsonak.

■ **Nafarroari dagokionez, zeintzuk dira bazter utzitako talde nagusiak, eta zein da egun euren egoera?**

Hain zuzen ere, NUPeko Gizarte Lan Departamentuan Nafarroako gizarte bazterteari buruzko ikerketa bat egiten ari gara. Oraindik ez daukagu datu zehatzik, ikerketa amaitu gabe baitago, baina erran daiteke baztertuen kopurua % 2 ingurukoa izan daitekeela. Baztertuen tipologiari buruz, bestalde, ijitoak dira gizarteak



Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Laneko Departamentuko zuzendaria da Concepcion Corera.

JOXE LACALLE

bazter utzitako talde nagusienera bat. Era berean, langabezian denbora luzea daramatenak ere agertzen dira, bai gizonezkoak bai emakumezkoak. Bakarrik bizi dira, lana galdu dute eta zailtasun handiak dituzte beste lan bat lortzeko. Askotan, gainera, alkohol arazoak eta antzekoak dituzte. Halaber, badira bazter gelditzeko arriskua duten taldeak ere, egoera larrian bizi direnak, adibidez, bakarrik bizi diren eta familiaren ardura euren gain duten emakumeak, heziketa eskasa eta lan esperientzia gutxi dutenak.

■ **Arazo honen aurrean, zein da gizarte langileen zeregina?**

Baztertearen aurka borrokatu ahal izateko. Administrazioak eta erakundeek erronka hori euren gain hartu behar dute, eta eremu guztietan bazterkeriaren aurka borrokatzeko planak prestatu behar dituzte: hezkuntzan osunean, lan esparruan, etxebizitzetan, eta abar. Hau da, plan orokorrak egin behar dira. Baina gizarte baztertzea, nahiz eta egiturazko arazoak izan, pertsona zehatzek pairatzen dutenez, gizarte lanak edo gizarte langileek

«Administrazioak eta erakundeek baztertearen aurka borrokatzeko planak prestatu behar dituzte eremu guztietan»

pertsona zehatz horiekin egin behar dute lan zuzenean, lagunduz, egitasmoak bultzatuz eta heziketa landuz. Langile sozialak, hala ere, beste erakundeekin ere egin behar du lan, Nafarroan adibidez, Pobreziaren Aurkako Sarearekin, batez ere gizarte sentsibilizatze. Hori da bere lanaren beste arlo funtsezko bat.

■ **Lan hori egitean, zeintzuk dira gizarte langileak aurrean topatzen dituen zailtasun edo oztopo nagusiak?**

Alde batetik erran behar da Administrazioak baztertuak bergizarteratzeko erabiltzen duen diru kopurua gizarte laguntzarako erabiltzen duena baino txikiagoa dela. Halaber, gizarte langileek

lan asko egin behar dute, baztertuek arazo ezberdin asko dituztelako. Eta ardura hori eskaintzea, askotan, ezinezkoa da, besteak beste, jende asko dagoelako, buroraziaren ondorioz... Bestalde, lan zaila da eta langileen inplikazioa eskatzen du. Orain Administrazioa baztertearen aurka borrokatzeko egitasmoak prestatzen ari da, baina orain arte ez zegoen horrelakorik: diru gutxi eskaini zaie bergizarteratzeko planei, gutxi landu dira.

■ **NUPeko Gizarte Lan Departamentuak, betidanik, arreta berezia eskaini dio ikerketa lanari. Zertan ari zarete gaur egun?**

Gure departamentuan gizarte bazterketaren inguruko gaiak lehenetsuta du. Bete izan da horrela. Eta, horregatik, departamentuko irakasle askok gure arreta eskaini diogu gai honi. Hamar urte daramagu jada gai hau aztertzen. Aholkularitza ere jorratu izan dugu alboan ditugun beste elkarte autonomoetan, hainbat egitasmotan lagunduz. Halaber, beti garatu izan ditugu ekintza eta ikerketa proiektuak. Nafarroan orain arte ez dugu lan asko egin,

s o s l a i a

Concepcion Corera 1977. urtetik da gizarte laneko irakasle. Ikasketak Nafarroako Gizarte Laneko Eskolan egin zituen. 1968. urtean ikasketak amaitu eta Herri Kulturako Zentroetan egin zuen lan. «Oso esperientzia aberasgarria izan zen», aipatu digu.

Ondoren, Elitzako Gizarte Langileen Eskolatik dei egin zioten eta bertan eman zituen zazpi urte, 1984. urtean Nafarroako Gobernua Gizarte Lan Eskola Unibertsitarioaren sorrera bere gain hartu zuen arte. «Hori zen, azken finean, guk nahi genuena, erakunde publiko bihurtzea».

Nafarroako Gobernuaren eskolan 1992. urtera arte egon zen, urte horretan, hain zuzen ere, Nafarroako Unibertsitate Publikoan sartu baitzen eskola. Concepcion Coreraren helburua ikerketa izan da betidanik, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan egin ez dituenean, Bartolome de Carranza elkartearen bidez bideratu ditu bere lanak, bertako kide sortzaila baita. NUPen, berriz, joan den apirilean izendatu zuten Gizarte Lan Departamentuko zuzendari.

baina orain gogoz hasi gara. Une honetan hiru ikerketa ildo ditugu abian, Nafarroako gizarte baztertea aztertzeko, gizarte laguntzarako dauden bideak aztertzeko, eta baztertearen aurka borrokatzeko ekintza berriak ikertzeko.

■ **Mintegiaren lelotzat, erran bezala, gizarte baztertearen gaia aukeratu duzue. Zer eskain dezake halako mintegi batek arazo honen aurkako borrokan?**

Mintegi honen helburua, oro har, esperientzia eta ideia ezberdinak ezagutzea eta trukatea da, hau da, bakoitzak jakin dezala besteak egiten ari direna, edo beste lekuetan nola egiten duten lan. Horretarako, hitzaldiak ezezik ikastaroak ere antolatuta ditugu. X

P A N E LUCRÁNDO

ZALDI EROA

LIRIKAZ
HONATAGO
35°

GAUR:
**NERA
BEA**

LUCIO ANEO
SENECA

Kontatzen dute Cratesek, Estibonen diszipuloa, nerabe ibiltari eta bakarti bat ikusi zuenean, ea bakarrik zer egiten zuen galdetu ziola...

Nire buruarekin ari naiz.

esan zuen nerabeak

Eta Cratesek erantzun zuen:

Kontuz ibili, kasu egidazu, Adi egon: Pertsona txar batekin ari zara nizeketa.